Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: **31**
Nork aurkeztu du:
**Grupo Espeleológico ESPARTA, HAITZULO Espeleo Taldea y ADES Espeleologia Elkartea**
Aurkezpen data: **2022/02/01**

Sugerencia Nº: **31**
Presentada por:
**Grupo Espeleológico ESPARTA, HAITZULO Espeleo Taldea y ADES Espeleologia Elkartea**
Fecha de presentación: **01/02/2022**

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Eskatzen da LPPan landa-eremuko karstak kontuan hartzea.

2. LPParen atal arauemailean eta informazio-atalean irizpide hauek sartzeko eskatzen da:

   a) Landa-eremuetako karstak LPPan ingurumen-babes handiena duten eremutzat hartzea, eta bertako haitzulo garrantzitsuak natura-balio handiko tokitzat.

   b) LPParen arauetan xedapen espezifiko bat sartzea eremu karstikoak xedatzeko.

   c) Karstei dagokienez, lursail horien azterketa karstologiko espezifiko bat (hiru dimentsiokoa) exijitzeko xedapen bat sartzea, administrazioaren aurretiazko baimena behar duten eraginei aurre egiteko.

   Baso-pista berriak debekatzea, baldin eta exokarsta (epikarsta) eralda badezakete.

   Eukaliptoak landatzea debekatzea, zeren eta, ur kantitate handia kontsumitzen dutenez, lehortu egiten baitituzte karstak.

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se pide considerar los karst del ámbito rural en el PTP.

2. Se solicita incluir en las partes normativa y de información del PTP los siguientes criterios:

   a) Incluir los karst situados en las zonas rurales como las zonas de mayor protección ambiental del PTP, y las importantes cuevas presentes como lugares de gran valor natural.

   b) Incluir en las Normas del PTP una disposición específica para la disposición de los ámbitos kársticos.

   c) En cuanto a los karst, incluir una disposición que exija un estudio específico de carácter karstológico (tridimensional) de estos terrenos ante las afecciones que requieran de autorización previa administrativa.

   Prohibir nuevas pistas forestales que alteren el exokarst (epikarst).

   Prohibir las plantaciones de eucaliptos, ya que al consumir grandes cantidades de agua desecan los karst.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3A82-IENH-FTKW-U8HT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Haitzuloei dagokienez, xedapen bat sartzea modu naturalean babesteko haien barrualdea eta eragin diezaiekeen kanpoaldea.

e) Kareharrizko ingurune horien balioa eta ingurumen-hezkuntza sustatzea, eta haien ingurumen-garrantziaz kontzientziatzea.

3. LPPak Mandoia mendiguneaz egin duen balorazioa berriz aztertzea, eta balioa ematea aurreko ataleko baldintzen arabera.

d) En cuanto a las cuevas, incluir una disposición encaminada a la preservación natural de su interior y de la parte exterior que pueda afectarles.

e) Fomentar la puesta en valor de esos entornos calizos y la educación ambiental, y concienciar de su importancia ambiental.

3. Reconsiderar la valoración que el PTP realiza del macizo de Mandoia y dotarle de valor en los términos del apartado anterior.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. LPParen behin-behineko onespenaren dokumentuan, kontuan hartuko dira eremu funtzionaleko sistema karstikoak.

2. a) Karstak Babes Bereziko kategorian sartzea aztertuko da.

   b) Babes Bereziko kategoriako gainerako osagaiekin gertatzen den antzera, karsten babesa araudiaren artikulatuan sartzea aztertuko da, eta eremu horietan artatu beharreko gidalerro espezifikoak sartu ahal izango dira.

   c) Gidalerro horien artean, sartu ahal izango da paraje horietan eragina izan dezaketen jarduerei buruzko azterketa xehatua egiteko beharra.

   Exokarsta eraldatzen baldin badute basopista berriak debekatzeko eskaerari dagokionez, ezin da ebazpenik eman BMko LPP berrikusteko dokumentuan.

   Baso-politikari dagokionez, esan behar da mendien arloan indarrean dagoen legeriak arautzen duela (Mendiei eta babespeko naturguneen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 1994/3 Foru Araua; martxoaren 20ko 3/2007 Foru Araua, mendiei eta babespeko naturguneen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua aldatzen duena), bai eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ere. Nolanahi ere, LPPak basogintzan erabilera jasangarriagoak sustatzeko irizpideak jasotzen ditu, eta ildo horri jarraituko zaio dokumentuaren hurrengo fasea idaztean.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Se tendrán en cuenta los sistemas kársticos del área funcional en el documento de aprobación provisional del PTP.

2. a) Se analizará la inclusión de los karst dentro de la categoría Especial Protección.

   b) Como el resto de los componentes de la categoría Especial Protección, se analizará la inclusión de la protección de los karst dentro del articulado de la normativa, pudiendo incluir directrices específicas a atender en estos ámbitos.

   c) Entre estas directrices, se podrá incluir la necesidad de realizar un estudio pormenorizado para las actividades que puedan crear afecciones en estos parajes.

   La petición que se realiza respecto a la prohibición de nuevas pistas forestares que alteren el exokarst no se puede resolver en el documento de la revisión del PTP BM.

   Respecto a la política forestal, hay que señalar que está regulada por la legislación vigente en materia de Montes (Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos; Norma Foral 3/2007, de 20 de marzo, de Modificación de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos), así como por el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso, el PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3A82-IENH-FTKW-U8HT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gainera, Batzar Nagusiek duela gutxi (2022-04-13) xedapen gehigarri bat onartu dute indarrean dagoen mendiei buruzko Foru Arauan, eukaliptoa lurralde historikoan zabaltzea geldiarazteko.

Además, las Juntas Generales han aprobado recientemente (13-04-2022) una disposición adicional en la Norma Foral de Montes vigente para frenar la expansión del eucalipto en el territorio histórico.

d) Babes-araubidea EAEko Sistema Karstikoen Katalogoan ezarriko da.

d) El régimen de protección se establecerá en el Catálogo de los Sistemas Kársticos de la CAPV.

e) LPPren Antolamendu-arauen 101. artikuluan (Paisaiaren zehaztapenak paisaia fisiografikoei eta naturalei (N) dagokienez) karstei buruzko atal gehigarri bat gehitzea aztertuko da.

e) Se analizará añadir en el Artículo 101. Determinaciones de paisaje en relación con los paisajes fisiográficos y naturales (N) de la normativa del PTP un apartado adicional en relación con los karst.

3. Eskaera aztertu eta baloratuko da.

3. Se analizará y valorará la petición.

**LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
**LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL**

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3A82-IENH-FTKW-U8HT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus